

Lizarrako  
Adierazpena

# Lizarrako Akordioa Ajuria Eneko Itunaren garapena dela dio Arzalluzek

Ituna bilduko balitz, bertan eztabaidatzea zuzentzat joko luke buruzagi jeltzaleak

**L**izarrako Akordioa Ajuria Eneko Itunaren aurkakoa dela diotenei ezetz erantzun die Xabier Arzalluzek. Bere ustez bide beretik doaz bi hitzarmenak, Lizarrakoak Ajuria Eneko hamargarren atala, «inor baztertu gabe», garatu besterik ez baitu egin. Barne Ministerioak ontzat jo du Lizarrako Akordioa Itunean aztertzea.

Felix Iriarte / Gasteiz

LIZARRAKO Akordioak Ajuria Eneko Ituna ezerezean utzi duela adierazi dutenak gezurtatu ditu Arzalluzek. Bi aldeetatik —HBtik eta PP-PSOEtik— jakinarazi dute EAJk, EAk, HBk eta IUk pasa den larunbatean izenpetu zuten akordioak Ajuria Eneko Hitzarmena hautsi egin duela eta beste aro bat zabaldu duela; positiboa ezker abertzalearentzat eta negatiboa alderdi espainolentzat. Arzalluzek, ordea, beste iritzi bat du. Bere ustez, bateragarriak dira, Lizarrako Akordioak Ajuria Eneko Hitzarmenaren hamargarren atala garatzen baitu.

Arzalluzen arabera, Lizarrako Akordioa iritsi da, besteak beste, Itunean alderdiak ez zirelako gauza izan ikuspuntuak batzeko hamargarren atal horri dagokionez; hau da, elkarrizketaren bidea zehazteko. Honela mintzatu zen Arzalluz Gasteizko Legebiltzarreko korridoreetan: «Ez goaz inoren kontra, ezta ere Ajuria Eneko Itunaren kontra; aldearantziz, han izan zen espirituz segitzen dugu». PPK eta PSE-EEk, izan ere, erreparoa jarri zizkioten Ardanzak aurkeztu



Jose Antonio Rubalkaba, Pere Esteve, Xabier Arzalluz, Domenech Sexmilo eta Xose Manuel Beiras atzo Gasteizen.

JOSEBA OLALDE

zuen txostenari, hau da, hamargarren puntua garatzeari, eta ahalegina bertan behera geratu zen.

EAJk beste bide bat urratzeari ekin zion, eta bide hori Lizarraino iritsi da. «Gu ez gaude geldirik egoteko. Aznarri hala esan genion. Hau atal hori garatzeko beste ahalegin bat izan da, inor baztertu gabe eta dogmatismorik gabe eginikoa», esan zuen.

**Marti Fluxarentzat positiboa da** • Ajuria Eneko Ituneko kideak martxoan bildu ziren azkenengo, eta Ardanzen txostena gaitzetsi egin zuten PPK eta PSE-EEk, guztien adostasuna eragotziz. Ituna berriro bilduko balitz, EAJk Lizarrako Akordioa era-

mango luke eztabaidarako, Arzalluzek jakinarazi duenez.

Iragarpena ontzat jo du Ricardo Marti Fluxa Estatuko Segurtasun idazkariak. Buruzagi jeltzalearen hitzen ondoren, adierazi du egokia litzatekeela Arzalluzen asmoa, «demokraten artean hitz egiten segitzea» ekarriko lukeelako. Ardanzen txostena gaitzetsi ondoren, Lizarrako onartua izan dadin aukerarik badagoen galdetu zioten, baina Marti Fluxak erantzun zuen garrantzitsuena alderdiak dauden foroetan eztabaidatzea dela, «elkarrizketa arazoak elkarrizketa gehiagorekin» konpontzen direlakoan.

Ituna hauteskundearen aurretik biltzea, hala ere, ez da erraza

izango. Arzalluzek garbi esan zuen PPK eta PSE-EEk ez dutela bildu nahi, konponbideen saioen ordez, tinkotasun diskurtsoa hobesten dutelakoan boto batzuren truke. «Garbi dago nork egiten duen elektoralismoa hemen. HBrekin hitz egiteak ez du botorik ematen, eta hori ondo dakite. Horregatik egiten dute egiten dutena. Guk, hala ere, aurrera egingo dugu eta arriskatu egingo dugu, herri honetan enpresari askok egiten duten bezala, baina ez dugu inolako segurtasunik emaitzari dagokionez», esan zuen. Marti Fluxak ez zuen hitza eman nahi izan bilerari buruz: «Gehiago pentsatu behar dugu batzen gaituenaren inguruan banatzen gaituenaz baino». X

**EA: «Lizarrako Akordioak aurrera egiteko diskrezioa behar da»**

■ Alkartasun Eguna igandean ospatuko dute Donostian

Idoia Guenaga / Bilbo

CARLOS GARAIKOETXEA Lizarrako Akordioak dakarren prozesuan aurrera egiteko isiltasunaren alde agertu zen atzo Bilbon. Akordioa «Ajuria Eneko Mahaiaz geroztik garatzen ari den prozesu garrantzitsuena» dela adierazi zuen. Mahaiko kide gehienek benetako bake prozesu bat martxan jartzeko saiok «sistematikoki bloketuta» ikusi zituztela adierazi zuen EAko lehen-dakariak, eta bide horretatik ezin zenez aurrera jo, «Eusko Legebiltzarren bi herenak ordezkatzeko genituenok beste prozesu bat bultzatzera eraman gintuen: Lizarran publiko egin dena».

Earentzat horrelako prozesuetan aurrera egiteko hobe da lan isila, diskretioa eta arduratsua egitea, adierazpen handiak baino. «Lizarrako Adierazpenean bertako kide gehienek horrela nahi izan dutelako, bat etorri gara Adierazpen publiko horrekin», baieztatu zuen Garikoetxeak.

Lizarrako Akordioak beste tratamendu bat merezi duela uste du Garikoetxeak: «Kritika gogorak jasotzen ari gara sinatzaileok, eta kritikatzaleek jarrera aldatu behar dute nahiz eta hauteskundeak hurbil egon». Eta EA aldeak hurbiltzen ahaleginduko dela gaineratu zuen.

Bestalde, Alkartasun eguna igandean Donostian egingo dela irarri zuen EAK: Anoetako kiroldegian eta Atano III.ean. Ondoren, 17:00etan ekitaldi politikoa izango da. X

## Presoen gaia gatazka konpontzeko giltzarrietako bat dela diote AABek

■ Euskal errepresaliatuen izaera eta eskubide politikoak onartzea eskatu dute

Eider Goenaga / Donostia

PRESOEN gaia gatazka konpontzeko giltzarrietako bat dela esan dute Amnistiaren Aldeko Batzordeak, Lizarrako Akordioaren irakurketa egiteko eskaini prentsaurrekoan. Osotasunean hartuta, «Euskal Herriarentzako abiapuntu inportante bat» izan daitekeela azaldu zuen atzo AABko koordinatzaile nagusi Julen Zelarainek: «Bai akordioa beraren edukiarengatik, eta baita akordioa sinatu duten esparru sozial, politiko eta sindikalaren tamainarengatik». «Bake planteamendu aseptikoetatik» aldentzen hasi dela uste dute AABek.

Gatazkak izaera politikoa duela eta konponbideak ere izaera hori izan behar duela onartu denez, AABek uste dute «derrigorrezkoa» dela «euskal errepresaliatuen izaera politikoa eta eskubide politikoak onartzea», presoak Euskal Herriratuz eta estradizioen aurka joz. «Akordioak dio negoziatio politikoa erabili behar dela, euskal gizarte osoak parte hartuz», esan zuen Zelarainek. Zentzu horretan, euskal presoak gatazka konpontzeko agente oso inportantetzat jo zituen, «ezinbestekoa baita haien partehartze zuzena elkarrizketa prozesuan».

Zelarainek prozesuaren bi epeei buruz hitz egin zuen: hasiera

fasea eta erabaki-fasea. «Hasiera fasean esaten da ezin duela baldintza gaindiezinik egon. Horri dagokionean esan behar dugu gaur egun elkarrizketak gauzatzeko oso agente inportante bat espetsuan dagoela, ETAk bitartekaritza izendatu zituenak hain zuzen», esan zuen.

Erabaki-fasean, berriz, biolentzia adierazpen guztien desagertzeari buruz mintzatu zen. AABen ustez, puntu horretan aurrerapauso garrantzitsua eman da: «Orain arte biolentzia beti ETArekin identifikatu da. Orain askoz ere urrutirago joaten gara, eta espresio guztiei buruz hitz egitean, hitz egiten dugu bi Estatuak di-



Maite Diaz de Heredia, Fran Balda, Julen Zelarain eta Aitziber Buñuelos.

EDURNE KOCH

tuzten biolentzia espresioez». Hala, Estatuko Segurtasun Indarren eta Ejerzitoen kanporatzea eta bestelako neurri judizialen desagertzea eskatu zuten.

Azkenik, gatazkaren oinarri eta ondorioei konponbidea emateko beharri buruz hitz egin

zuen Zelarainek. Gatazkaren ondorio inportanteenetarikoak preso eta errefuxiatuak zirela azpimarratu zuen. «Beraz, ezinbestekoa da preso eta errefuxiatu guztien etxeratzea, azken batean, amnistia orokor bat», gaineratu zuen. X